



BELAUNTZA, LEABURU ETA GAZTELU BIZIKLETAZ

Eskualdea ezagutu bizikletaz sailaren baitan, Belauntza, Leaburu eta Gaztelu zeharkatuko ditugu; 17 kilometroko bidea > 2

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

hitza



Larunbata
2009-07-04

VIIURTEA 1.745 ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Javier Año, Jokin Azkue, Oskar Renedo eta Jokin Aurrekoetxea, atzo, presa egiteko lanak ikusten. E. EZEIZA

Oria ibaiko presa puzgarria erakitzeko lanekin hasi dira

TOLOSA Euriteen ondorioak murriztea eta kirol jarduera gehiago egitea ahalbidetuko du proiektuak; 4 hilabete iraungo dute lanek > 3

Erantzukizuna nork duen ari da aztertzen Udala

TOLOSA Voith-Gorostidiko etxebizitzaren zozketa errepikatu beharra izan zuten akats batengatik > 6



Gazteak gustura aritu ziren jolasean, atzo arratsaldean. I.T.

Gaztetxoek ederki girotu dute Amarozko jaien hasiera > 5

PAKITO SAGASTIBELTZA
AURRERAKO DELEGATUA

«Galdu edo irabazi festa handia izango da bihar Leitzan» > 7

Jon Goio
militante
abertzale
tolosarra
aske utzi dute > 6

bertako egunkaria
egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01

(Astegunetan 09:30-20:30 /Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldekohitza.info

eraman/bidali izen-emate orria:
Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa
Herriko plaza 1 • 31880 Leizta

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:

• N.A.:

• Lanbidea:

• Jaioteguna:

• Helbidea:

• Herria:

• P.K.:

• Tel.:


• Posta elektronikoa:

• Kontu zenbakia:



Ibilbide motza izango da gaurkoa, baina gogor xamarra, ezagutu behar ditugun hiru herriak 200-400 metrora baitaude; 17 kilometroko luzera duen ibilbidea egingo dugu.

Belauntza- Leaburu- Gaztelu



JOXEMI SAIZAR

Aurreratu genuen bilduma honetako lehen artikuluan, eskualdea ezagutzeko ibilaldi leunak eta errazak egiten saiatuko ginela, baina bazuetan ezinezkoa izango zela gure eskualde beraren orografia-gatik. Gaurko hau da horren adibide bat. Ibilbide motza da, baina Belauntza, Leaburu eta Gaztelu eza-gutzeko aldapak igo behar dira derrigorrez, ez dago beste aukerarik, 200-400 metro inguruko altueran daudela kontuan hartuta. Horregatik, aukeren artean, bide leunena aukeratu dugu: Leaburu zuzenean igo beharrean, Belauntzatik barrena igoko dugu. Gaztelura joateko, errepidez, aukera bakarra dago.

Tolosatik abiatuta Ibarra pasatzen duen GI-2130 eta behin Xabi Fernandez txapeldun olimpiakoaren herria pasata, berehala hartuko dugu eskuinetara (GI-3211) eta hortxe hasiko dira aldapak. Bi kilometro eskaseko igogera dugu Belauntzaraino. Herrira sar gaitezke San Juan Bataiatzailearen eliza (obretan zegoen joan ginenean, kanpandorre berria jarrezkotan, itxuraz), frontoia eta udaltxea ikustera. Beste aukera da saihesbidea hartu eta herriaren gaikaldetik zuzenean Leaburura jarraitzea (GI-3212), aldapa jarraituz. Sanjoanek pasa berri dituen herrira sartuz gero, saihesbidera ateratzeko aldapa motz eta gogorra dago, taberna-jatetxe eta kultur etxearen aurretik. Eta sanjoanetatik sanpedroetara. Laster iritsiko baikara Leaburura. Plazan udaltxea, San Pedro eliza, Txontxorpe (sekula ikusi gabeko hiru kontsonanteko silabak erabiltzen dituzte nonbait herri honetan), Zazpi bide elkarte eta taberna-ostaltua ikusi daitezke. Jaien prestakizunetan ari zirenean Arrospeide aizkolariaren herrian joan ginenean eta haiek ondo pasatu ondoren, eguraldia lagun, festondoarekin izango dira lerro hauek argitaratzen dituztenak.



Laugarren ibilbidean Gaztelu bisitatzeko aukera izango da, besteak beste. JOXEMI SAIZAR

aldapa gogorra jaitsi, Mahala baserriraino, eta handik aldapa gora berriro

gara, hasieran Mahala baserriraino jaitziera izanik, ondoren San Sebastian ermitara igoera eta azkenik jaitziera handia eta gogorra Ibarraraino, Tolosan bukatzeko berriro.

gogorra jaitsi, Mahala baserriraino, eta handik aldapa gora berriro



Goikoetxea 'Gaztelu' idazlearen oroitaria eta azkenik Intxaurpe frontoia eta Muxarra elkarte aurkituko ditugu. Errepide bakarra denez, atzera bide beretik itzuliko

Bide leunena hartuko dugu: Leaburu zuzenean igo ordez, Belauntzatik barrena igoko dugu

Gaztelura joateko aldapa gogorra jaitsi, Mahala baserriraino, eta handik aldapa gora berriro

Bide beretik itzuliko gara: aldapa behera hasieran, San Sebastian ermitara gora eta behera berriro

Hilberriak eta urteurrenak

GILLERMO URKIZU GARAIAR
JAUNA
-Goian bego-
Elduain Alkatearen aita



ELDUAIN
2009ko uztailearen 4a

Udaltxeko langile zein zinegotziok, familiaren saminarekin bat egiten dugu

GORKA TELLERIA IZUZKIZA
-Goian bego-
Ez nau izutzen negu hurbilak uda betezko beroan dakidalako irauten duela orainak ere geroan.



BEASAIN
2009ko uztailearen 4a

Loizapze BHIko ikasle, guraso, langile eta irakasleak

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAN jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak-urteurrenak-eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

Atzerriko nahiz bertako gazteak ariko dira lanean Bedaioko auzolandegian

Gizartea » Bi txandatan ariko dira lanean; garbitokia eta bere inguru berreskuratzea da beraien helburua.

ERREDAKZIOA

Hilaren 1etik 14ra eta uztailearen 16tik 29ra bitartean egingo dira Auzolandegiak Bedaioko Nagusi Etxean. Auzolandegia Eusko Jaurlaritzako Gazteria eta Gizarte Ekintza zuzendaritzak antolatutako programa bat da, eta Tolosako Udalak laguntzen dio.

Uztailearen 1ean 18:00etan iritsi ziren munduko zonalde ezberdinetatik gazteak; Euskal Herriatik, Valentziatik, Gaztela-Mantxa, Murtzia, Errusia, Italia, Frantzia, Turkia, Hego koreatik, Serbia, Txekiar Errepublikatik eta Mexikotik.

Gazte hauen funtzioa Bedaioko garbitokiaren eta bere ingurunearen berreskuratzea da. Goizetan lanean aritu ostean, arratsaldeetan inguruaz egaztuzko aprobeztatzen dute.

Telefonoak Larrialdiak. ((112))

OSASUNA.

Alegialdea. Osasun z.: 943 653212

Anoeta-Alkiza-Hernialde.

Medikua: 943 65 23 39

Asteasu. Medikua: 943 692423

Baliarrain. Medikua: 943 889003

Berastegi-Elduain.

Medikua: 943 683361

Bidegoian. Medikua: 943 681134

Ibarraldea. Osasun etxea: 943 672411

Ikaztegieta. Medikua: 943 653329

Irura. Osasun zentroa: 943 690720

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Orendain. Medikua: 943 655595

Orexa. Medikua: 943 682228

Tolosa.

Anbulatorioa, larrialdia: 943 461111

San Esteban: 943 006800

Gernikako arbola: 943 006900

Amarozko dispen: 943 672637

Asuncion klinika: 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

DYA: 943 672536

Gurutze Gorria: 943 674888

Villabona. Anbulat.: 943 006970

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 943 693930

GARRAIOAK.

Renfe: 902 24 02 02

Donostiako autobusa: 943 361740

Tolosalde bus: 943 650621

Leitzarar autob.: 948 221015

Taxia: 943 670420

Taxia (Leitza): 608 873016

BESTERIK.

Ertzaintza: 943 538820

Tolosa-Udaltzaingoa: 943 675858

Iurramendi egoitza: 943 670325

Alkoholiko anonimoak: 943 248474

Oria ibaiko presa puzgarria eraikitzeke lanak hasi dituzte jada

Hirigintza » Euriteen ondorioak murriztea eta kirol jarduera gehiago gauzatzeko aukera eskaintzea ditu xede.

ESTI EZEIZA

Hasi dituzte Oria ibaiko presa puzgarria eraikitzeke lanak. Lehendabiziko eginbeharrak ingurunea garbitzea eta sarbidea egitea izan dira, eta hauek dagoeneko burutu daude. Presak bi erabilpen izango ditu. Alde batetik, eurite handiak egiten dituen honen eragina murrizteko izango da, eta bestetik, aisirako aprobeztatuko da. Hau Errota Haur liburategiaren eta bialaren artean kokatzen da.

Atzo, lanak nola doazen azaltzeko agerraldia egin zuten Jokin Azkue, hirigintzako zinegotziak, Oskar Renedo, kirolerako zinegotziak, Jokin Aurrekoetxea Arkaitza enpresako kudeatzaileak eta Javier Año, zuzendaritza teknikoa arduradunak. Espainiako Gobernuaren toki inbertsiorako estatu fondoak herrietan burutu nahi diren proiektuak finantzatzeko emandako diru laguntza erabiliko da proiektua ordaintzeko. Hau eskaintza publikora ateratu ostean, Arkaitza enpresari esleitu zion obra Udalak, eta lau hilabete buruan amaituta egongo dela aurreikusten dute. Honekin batera, laguntza honiesker aurrera eramango diren beste lau egitasmo



Atzo eman zituzten lanen inguruko xehetasunak, Javier Año, Jokin Azkue, Oscar Renedo eta Jokin Aurrekoetxeak. E.E.

daude: Musika Eskolako kanpoaldearen berritzea, Igeralde plaza birmoldapena, Mustadeko zubia eta Amarotzen birmoldapena.

50 metro eta 77 zentimetro neuruko ditu presa puzgarri berriak. Gainera, puzgarria izatean, honek duen sistema berezia dela eta, ur asko dagoela somatzean hustu egingo da, eta emaria jaiste-ari, puztu.

Presaren eraikitze lanak, kolektorearen obra, eta Ibarrako Zelai

ibaiko uraren kalitatea hobetzeko lanekin lotuta daude. Azkueren hirtzetan, Tolosak ibai osoa birgaitzea baita helburua.

1.494.124 euroko aurrekontua du proiektu honek eta Udalekoek argi dute egungo egoerak asko egingo duela hobera. Hala, kirol jarduerak eremu zabalagoan egingo aukera eskainiko du, honela, orain arte egin ahal izan ez diren zenbait jarduerak gauzatzeko direlarik. Mustadetik hasi eta Errota

Haur liburtegiaren ondoan kokatuko den presa berriraino ibilbide jarrai bat osatu ahal izango da.

Lanak hasi direnetik ikusmin handia sortu dute, jende ugari hurbiltzen baita Zumardi Txikiaren ondoko zubira, lanak aurrera nola egiten duten ikusteko. Gainera, hor inguruan zeuden amuarrainak ere harrapatzen ari dira, ondoren, beste ibaiko gune batera eramateko, eta horrek ere interesa piztu du tolosarengan.

Danzantes de Gurrea eta Udaberri dantza taldeak gaur, kalean

Kultura » Gau Giroko ekitaldiekin jarraituz, bi dantza talde hauek izango dira protagonista gaur, 19:30etik aurrera.

ERREDAKZIOA

Gau Giroko egitarauan klasikoetako bat da jada Udaberri dantza taldearen emanaldia. Honenbestez, aurtengoan ere ez dute hutsik egingo, eta gaur, Tolosako kaleak alaitzen ibiliko dira. Beraiekin batera izango dira Danzantes de Gurrea taldekoak ere. Hauek Huescatik datoz, beraien dantza egiteko modua nolako den erakusteko.

Iluntzean hartuko dituzte hiriko kaleak, dantzariak. Hasteko, 19:30ean aterako dira, eta Alde Zaharretik barrena kalejiran ibiliko dira. 22:30ean berri, Plaza Be-



Danzantes de Gurrea dantza taldekoak Tolosan izango dira gaur. HITZA

rrian, emanaldi nagusia aurkeztuko dute. Dena den, euria egingo balu Berdura plazan egingo litza-teke ekitaldia.

Aragoitik datoz dantzara

Gurreako berrogei gaztez osatuta dago Danzantes de Gurrea taldea.

Beraien dantza egiteko modua denboran iraunaraztea dute helburu, eta lan horretan, Aragoiko hainbat eta hainbat dantza jaialdian hartu dute parte. Bestalde, belaunaldiz belaunaldi dantzarako gogo eta tradizio hori hedatzeko hainbat lan egiten ari dira.

Gurrea de Gallegoko dantza egiteko modua beraien identitate zeinu garrantzitsuenetakoa da bertakoentzat. Dantza estilo hau XVII. mendean jaio zela uste dute Aragoi Altuko gainontzekoak bezala. Gerra Zibilean izan ezik, gainontzeko garai guztietan transmititu eta dantzatu da. Egun mantentzen diren doinuak mairu eta kristauen irudi dira eta, beraien arteko borroka irudikatzen dute.

Danzantes de Gurrea taldeak 2005ean, Kultur Elkarte bezala izena eman zuen, talde egitura bat sortuz. Irailaren 8an Festa Nagusia ospatzen dute. Hau da beraien tza urteko egunik garrantzitsuenak.

Aragoikoekin batera izango dira Udaberri dantza taldekoak gaur. Ohikoa da Tolosakoak kanpoko beste dantza taldeekin batera ikustea. Tolosan ekainaren 12an ospatu zuten Dantzari Txiki eguna, eta bertan, beste hainbat herritako gaztetxoak izan zituzten lagun, Hernialde, Villabona, Lizartza, Irura, Ibarra, Zegama eta Alegiak, hain zuzen.



Garagardo Festa zabalik Iruran

IRURA » Irurako Garagardo Festari hasiera eman zioten atzo arratsaldean, Irurako Ikastolako irakasle, guraso eta Irurako Udaleko ordezkariak topa eginaz. Gaur eta bihar ere 18:00etatik 01:00etara arte zabalik

izango da herriko frontoian. 70. hamarkada gai bezala hartu dute aurtengorako eta ideia horren baitan, orain 40 urte ohikoak ziren autoak ikusteko aukera izango da gaur 19:30etik aurrera. I. GARCIA

VI. Transernio Pilota Txapelketari hasiera emango diote gaur

Aduna » Larunbatero eta ostegunero jokatuak dituzte partidak; finalak abuztuaren 8an izango dira, herriko festetan.

ERREDAKZIOA

Adunako Pilota Eskolako gurasoek antolatuta eta Transernio enpresaren babesarekin, gaur ekingo diote VI. Transernio Pilota Txapelketari. Larunbatetan (16:00etan) eta ostegunetan (19:00etan) jokatu dira partidak eta finalak abuztuaren 8an izango dira, herriko festetan.

Txapelketan benjamin, alebin, infantil eta kadete mailakoek jokatzen dute eta ondorengo herriko pilota eskolakoek: Aduna, Alegia, Amezketeta, Andoain, Añorga, Azkoitia, Azpeitia, Bidegoian, Hernani, Lasarte, Usurbil eta Villabona.

Gaurko partidetatik, bi benjamin mailakoak eta beste bi kadete mailakoak izango dira. Benjaminek partida bat oraindik zehaztu gabe dago eta bestea Amezketeta eta Hernani artekoa izango da. Kadete mailan, Usurbil eta Alegia batetik, eta Hernani eta Azkoitia, bestetik, lehiatuko dira.

Esan bezala, partidak larunbatero eta ostegunero izango dira. Salbuespena hilaren 25a, larunbata, izango da. Santio Eguna da eta egun horren ordez hilaren 24ean jokatu dira partidak.

Laburrak

Kirol Eskolaren ikasturte amaierako festa, gaur

ZIZURKIL » Zizurkil Goiko gurasoek antolatutako Kirol Eskolaren ikasturte amaierako festa egingo dute gaur. 10:00etan elkartuko dira plaza eta altxorren bila jokoa egingo dute Kirol Eskolan izena eman duten 28 haurrek. Eguerdian bazkaria egingo dute haur eta gurasoek Zimiterioan. Arratsaldean, nahi duenari irekia, buztinarekin aritzeko tailerra egingo dute 17:00etatik 19:00etara.

Diru laguntzak UEUko ikastaroetako ikasleei

ZIZURKIL » Udako Euskal Unibertsitateak antolatzen dituen ikastaroetan parte hartzen duten zizurkil-darrei Udalak diru laguntzak emango dizkie matrikulak ordaintzeko. Diru laguntza hauek jasotzeko informazio gehiago jaso nahi duenak Aurrera Plazako udal bulegoetara joan daiteke edo 943 69 24 95 zenbakira deitu.

Gazteentzat ekimenak Ostargik antolatuta

ZIZURKIL » Ostargik antolatuta, bi ekimen izango dira uztailean. 9-13 urte bitartekoentzat Gipuzkoa Ezagutzen, hilaren 8tik 9ra, eta 14-18 urte bitartekoentzat kanpaldia Otxagabian, hilaren 21etik 24ra. Ekimenetan parte hartu nahi dutenek lehenbailehen Gaztezuloko lokalera jo behar dute, lekurik bada goien jakiteko.

«Inspiraziorako iturria azkenean eguneroko bizitza izaten da»

IMANOL SORONDO » Amodiozko Gutunen Lehiaketako irabazlea

Ibarra » Lehenengo aldiz lehiaketan, autore batek, hau da, Imanol Sorondok, lehenengo eta bigarren saria eskuratu ditu.

IMANOL GARCIA

Ez da lehenengo aldia Imanol Sorondok (Hernani, 1969) sariak eskuratzen dituena. Aurten, hain justu, Bergarako Amodiozko Gutunen Lehiaketan lehenengo saria lortu zuen. Aste honetan Villabonako Amodiozko Gutunen Lehiaketan lehenengo eta bigarren saria jaso ditu. Egundak bizi da Sorondo.

Aurreneko aldiz parte hartu duzu Villabonako lehiaketan?

Ez, parte hartu nuen orain dela 15 urte inguru. Oraingoan bigarren aldian izan da. Saria jasotzen dudana lehenengo aldian.

Hain justu, bi sari jaso dituzu, lehenengoa eta bigarregoa.

Lehenengo kasua da horrelako zerbaitez gertatzen dena Villabonan. Ez dakit zer esanahi izan dezakeen horrek.

Saririk jasotzea espero zenuen?

Botatzen duzunean, esperantza baduzu. Helburua ez da irabaztea, baina erronka bezala hor dago. Jakingo banu seguru ez duela balio, ez nuen bidaliko. Bidalterakoan esperantza baduzula esan nahi du, nire kasuan behintzat. Baina gero hori epaimahaiaren erabakia da, esan nahi dut, gustu kontua dela azken finean. Begi onetik sartzea.

Zeratik bidali zenuen lan bat baino gehiago?

Esan dizudana da arrazoia. Berez niri galdetako bazenit bidalitzeko lan horietatik zein nuen gustukoena, bigarren saria lortu duena zen. Horregatik bidaltzen ditut bat baino gehiago. Lehiaketa batera bidaltzea motibazio bat da idazteko. Eta nik, behintzat, ateratzen zaizkidan guztiak bidaltzen ditut.

Idaztearena nondik datorkizu? Lehiaketetara bidaltzeko edo bestela ere idazten duzu?

Bestela ere idazten dut, baina nire kolokorako. Lehiaketena, pixka bat egoari begira eta egiten duzunak zernolako maila izan dezakeen ikusteko. Nire bururako ere idazten dut, aurkezten dudana baino gehiago.

Eta zerbaitez argitaratzeko asmoarekin?

Ez dago nire helburuen artean, momentuz behintzat. Gainera, daukadan adinarekin... Liburu bat argitaratzea hitz handiak dira nirek lehenbailehen Gaztezuloko lokalera jo behar dute, lekurik bada goien jakiteko.



N. URBIZU

Villabonako ez da jaso duzun sari bakarra. Bergaran ere saria jaso duzu, hau ere Amodiozko Gutunen Lehiaketan.

Bai, justu modalitate berdinean. Zerbaitez berezi duzu amodiozko gutunekin?

Nahiko utzita neukan idazteko kontua, behintzat, lehiaketetara aurkeztearena. Berritro botatzen duzunean, esperantza baduzu. Helburua ez da irabaztea, baina erronka bezala hor dago. Jakingo banu seguru ez duela balio, ez nuen bidaliko. Bidalterakoan esperantza baduzula esan nahi du, nire kasuan behintzat. Baina gero hori epaimahaiaren erabakia da, esan nahi dut, gustu kontua dela azken finean. Begi onetik sartzea.

Eta beste lehiaketa batzuetara aurkeztu zara?

Beroaldi horrekin beste leku pare batera bidali ditut lanak. Ez dira mota berekoak, ipuin laburrak dira kasu honetan. Batean ez zen zortetik egon eta bestera oraintxe bidali berri daukat eta ikusiko dugu zer gertatzen den.

Nondik hartzen duzu inspirazioa?

Pentsatzen dut inspirazio iturri norbera dela eta zure inguruko, zure emaztea, zure umeak... Nire kasuan, gutun bateko protagonistak nire aitona-amonak dira. Nire ingurutik hartzen ditudan gauzak dira eta gero literaturak denetarako ematen du, paperak dena eusten du eta orduan imaginaziotik tira egiten duzu. Baina, azkenean iturria eguneroko bizitza da.

Bikotea zorteduna duzu, ondoan amodiozko gutun ederrak idazten dakiena duelako.

Berari galdetu beharko zaio hori. Literatur sorkuntzan ez dauka zerikusirik nortasunarekin. Hemen inguruan lankideek ikusi zutenen, sorpresa eman niela esan zidaten. Oso desberdina da norberaren irudia eta izateko modua eta gero paperaren aurtean jarri eta idazten dena. Egunerokotasuna inspiraziorako bai, baina gero askoz ere konplikatuagoa da maitasun kontuetan.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Alurren 'Sua' ikuskizuna Hondarribian izango da

Ibarra » Alurr dantza taldearen emanaldia Hondarribiako Bonito Egunaren baitan izango da, gaueko 23:00etan.

ENERITZ IRAOLA

Alurr dantza taldearen *Sua* ikuskizuna ikusteko aukera izango da gaur, 23:00etan Hondarribiako San Pedro kalean. Bonito Egunaren baitan izango da Ibarrako dantza taldearen emanaldia.

Sua ikuskizuna 2008ko azaroaren 16an estreinatua zuen Alurr Dantza Taldeak Tolosako Leidor antzokian. Orduz geroztik, Euskal

Herriko herri ugartanegon dira: Ibarra, Balmaseda, Villabona eta Lekeitio. Hondarribiako *Sua* ikuskizunaren seigarren emanaldia izango da.

1.609. urtean Lapurdin gertatutakoan oinarritutako istorioa da ibarrek taularatzten dutena. Eneko Aritzaren filma dago oinarrian. Hortik abiatuta, Edu Murrumendiaren, Alurreko gazteek eta Katixa Perekoren koreografia bereziak sortu dituzte.

Dantzaz gain, bestelako elementuek ere ikutu berezia emango diote saioari. Ramon Garcia di-seinaturiko jantziak izango dituzte soinean eta argi eta bestelako teknikek ere baliatuko dira.



Auzoetako jaiek ere merezi dutelako

TOLOSA » Atzo hasi ziren Amartzuz auzoko jaiek suzuria jaurti zutenean. Arratsalde osoan gaztetxoak aritu ziren jolasean, buruhandiak eta txokolata ere izan zituztelarik. Gero, Musika Bandaren kontzertuaren os-

tean, afari legea egin zuten auzotarrek, eta eguna ederki amaitzeko Disko Top festa zuten zain gazteek. Gaur jarraituko du jai giroak, 08:00etan garbiketa orokorra egin eta gero. I. TERRADILLOS

Ekintza ugari Oargirekin datorren asteburuan

Tolosa » Arroilen jeitsiera, Tenden mendira igoera eta Eginora eskalada antolatu dituzte Oargi mendizale elkarteak kideek.

E. IRAOLA

Datorren larunbatean, uztailearen 11n, arroilen jeitsiera egiteko aukera izango da goizean La Leze kobara-izuloan. Ekintza hau doan izango da bazkideentzat eta 4,5 euroko kostua izango du bazkide ez dire-

nentzat. Egun berean, beste irteerak ere antolatu dute. Panticosa aldera abiatuko dira 16:00etan. Gero igandean, Tenden mendira (2.853m) igotzeko. Zortzi orduko ibilbidea izango da eta 55 euroko kostua izango du.

Uztailearen 12an, Eginora eskaladatzera joateko aukera izango da.

Irteera hauetan parte hartu ahal izateko alde zurekin izena eman beharko da. 688 698642 zenbakira deituta edo info@argi.org helbidera idatzita. Izena emateko azken eguna uztailearen 7a izango da.

Laburrak

Sebastopol-eko titiriteroak Amaroako Antzerki Astean

TOLOSA » Gaur amaituko da Amaroako Antzerki Astea, Sebastopol-eko titiriteroen bisitarekin. Hala, Amartzuz auzora inguratzen denak *Pailaso titiriteroak* izeneko emanaldiaz gozatzeko aukera izango du. 17:30ean jarri dute hitzordua, parkean.

Hodei Truk 'O happy day?' kasting-aren finalean

TOLOSA » Tolosako Hodei Truk abesbatza ko kideak *O Happy day 2* lehiaketako kasting-aren finalean izango dira bihar. Honakoa da Tolosako abesbatzak *O Happy day* saioan sartzeko izango duen azken aukera. *This little light of mine* abestia espiritualak hautatu dute, beste lehiakideei aurre hartzen saiatzeko. Saioa zuzenean jarraitzeko aukera izango da ETB 1en 22:00etatik aurrera.

Firma bilketa egingo du Zahartzaro Duinak, gaur

TOLOSA » Zahartzaro Duina plataformak firma bilketa egingo du gaur, 12:00etatik aurrera, Triangulo plazan. «Gerontologiko berriaren proiektua hobetzeko» lau proposamen aurkeztu dituzte, eta horiei atxikimendu ematea izango da firma bilketaren helburua. Herritar orori egin die deialdian parte har dezaten.

KZ Guneak ordutegi berezia izango du uztailean

ANOETA » Urte osoan zehar egondako ordutegiak aldatu egingo dute uztailean, KZ Gunean. Goizez, 11:00etatik 13:00etara irekiko dute astearte, asteazken eta ostegunetan. Ostiralero tutorearen bisita izango dute 16:00etatik 20:00etara. Uztailearen 27tik Irailaren 1era arte itxita egongo da KZ gunea.

Dena dago ikasliburuetan

ikasliburu guztiak eskuratzeko:

www.ekar.com

ARABATZE - BIZKAIA - BERGARA - BILBO - DONOSTIA - GASTEIZ - HERRIKU - IRUN - IURRIA - TOLOSA

Erantzukizuna norena den aztertzen ari da Udala

Tolosa » Voith-Gorostidiko babes ofizialeko 79 etxebizitzaren zozketan izandako arazoa aztertzen ari da zerbitzu juridikoekin.

REBEKA CALVO

Voith-Gorostidiko etxebizitzaren bulegoko udal arduradunak, Aitziber Lazkanok, esandakoaren arabera, ostegunean bertako babes ofizialeko 79 etxebizitzaren zozketan izandako arazoa, «giza akats» baten ondorioz gertatu zen. «Lehenengo zozketa, hau da, mugikortasun urriko eskatzaileei zuzendutakoa, ondo joan zen, baina bigarengoa, 35 urtetik beherakoenean, erdia egina zegoela 45 zenbaki lote-

ria-ontzian ez zeudela konturatu zen mahaian zegoen pertsona bat», argitu du.

Arazoa dela eta, udaletxeko arduradunak zerbitzu juridikoekin batera bildu eta erantzukizuna zeinena den aztertzen ari direla ere esan zu Lazkanok. «Giza akatsa izan da, oso talmagarrria, bai, baina giza akatsa. Orain kaltetu guztiaren harremanetan jartzen ari gara», nabarmendu du.

Zozketa guztietan parte hartu duen enpresa

Lazkanok, era berean, zozketa egiterakoan mahaian bera, Jokin Bildarratz Tolosako alkatea, notarioa eta orain arteko Voith-Gorostidiko zozketa guztietan egon den enpresa bateko arduraduna zeu-



Jende ugari gerturatu zen ostegunean Leidorren egindako zozketara. E. EZEIZA

dela esan du. Enpresa honek loteria-ontzien bidez egiten den zozketaren azpiegitura guztiaren arduraduna da eta bera izan zen, hain zuzen, huts egiteaz konturatu zena.

«Loteria-ontzian 45 zenbaki sartu gabe zeudela konturatzekoan segituan erabaki genuen, notarioa ere han zegoela, noski, zozketa bertan behera utzi behar zela, eta ondorioz, ordurarte banatutako 55 etxebizitzaren zozketak ez zuela balio. Arratsaldean berriz ere, guztia errepikatu behar zela.

55 pertsonekin harremanetan jartzen saiatu ginen segituan, eta gehienekin ere hitz egin genuen. Normala da haserretzea, baina zozketak ez zuen balio, baliogatu egin behar zen», argitu du udal langileak.

Horiek horrela, aipatu bezala udal arduradunak kaltetuekin harremanetan jartzen ari dira eta baita erantzukizuna zeinena den aztertzen ere. Datozen egunetan argituko dute zein ondorioetara iritsi diren.

100 lagunek eman dute izena jada danborradan parte hartzeko

Ibarra » Bartolo Jaietako arduradunak ia desagertuta zegoen ohitura berreskuratzeko dute aurtengoa.

ERREAKZIOA

Ibarrako Bartola Jai Batzordeak danborradak «berreskuratzeko» egindako lana emaitza onak izaten ari da. Izan ere, 100 lagunek eman dute izena jada abuztuaren 21eko helduen danborradan parte hartzeko.

Azken urteetan danborradak indarra galduz joan zen eta ia ez zen egin ere egin, horregatik erabaki dute Bartolako arduradunak aurten egitea. Entsegu bakarra egongo dute egunean bertan 18:00etan plazan eta danborradan atera aurretik elkartearen afaria egongo dute. Tolosako gazteentzara ere ariko da kaleetan giroa alaitzen.

Goio aske utzi dute eta Agirrebarrena Parisen da

Atxiloketak » 'Euskal presoak Euskal Herrira, hitzez eta ekintzez' lempaean manifestazioa egin zuten atzo Ibarren.

REBEKA CALVO

Pasa den astelehenean Frantziako Poliziak atxilotutako Jon Goio militante abertzale tolosarra aske utzi zuten ostegun arratsaldean.

Joseba Agirrebarrena lizartarra ere aske utzi zuten ostegunean. Bere semea, aldiz, Ibai, Parisera eramane zuten atzo. Eneko Etxegarai eta Gilen Goiti gazteak ere Parisera eramane zituzten lizartzarrekin batera eta ondorioz, hiru lagun hauek dira larunbatean hasitako sarekadaren ondotik atxilotuta jarraitzen duten bakarrak.



Jende asko bildu zen atzo Ibarren manifestazioan. R. CALVO

Frantziako Poliziak esandakoren arabera, atxiloketak interes turistikoko guneen kontra izandako erasoengatik egin dituzte.

Presoen eskubideen aldeko manifestazioa Ibarren

Bestalde, atzo Ibarren presoen eskubideen aldeko manifestazioa egin zuten asteartetik herriko pla-

zan egin duten kanpaldiari amaiera emateko.

Manifestazioa *Euskal presoak Euskal Herrira, hitzez eta ekintzez* lelopean egin zuten, izan ere, honenkin Ibarren Udalak ia presoekin senideei diru-laguntzak kendu izana salatzearekin batera udal arduradunak «urrats praktikoa exijitzeko» ere baliatu zuten.

Gogoratu behar da, era berean, asteartean izandako ohiko batzarren ondotik erabaki zutela presoen senide eta lagunek kanpaldia hastera. «Presoen eskubideen alde azaltzen badira, bereaien jarduerak praktikoko norabide horretan joan beharko luke», azaldu dute zentzu honetan.

Udalaren oharra

Ibarrako Udalak, bere aldetik, «presoen lagun eta senideek akordio bateratua lortzeko borondateirik ez dutela» salatu du.

Izan ere, asteartean egindako ohiko batzarrean bilera bat egitekotan gertatu ziren, baina Udalaren hitzetan «erreibindikazio kanpainari jarri dute martxan udal ordezkariekin adostu zuten bilera egin aurretik». «Udalaren aburuz jarredura honek traizioa egin dio kolektibo honek planteatzen duen gatazkari irtenbide bateratu bat bilatzen saiatzeko hartu zen hasierako akordioari», nabarmendu dute.

Ohiko batzarrean Udalbatzak senide eta lagunek aurkeztutako mozioa ez zutela onartu eta horren ordez beste bat aurkeztu zutela gogoratu du Udalak: «Mozioan arlo penalean indarrean dagoen araudia betetzeko eskatzeaz gain, edozein motatako indarkeria jasatu duten pertsonen sufrimendua aitortu eta giza-eskubide guztien errespetua defendatzeko beharra gaineratzen zen. Guztien adostasunarekin onartu zen idatzitako honetaz, ez du jasotzen Ibarrenko presoen

senideek gartzelatar egin dituzten bidaia diruz laguntzea».

«Presoen lagun eta senideen kezen aurrean, Ibarrenko alkateak, Txelo Romeok, neurri hori onartu aurretik aztertu egin behar dela azaldu zuen. Indarrean dagoen ordenantzak kontzeptu honetan zenbait diru-laguntza ematea jasotzen zuela gogoratu zuen, baina ordenantza aplikatzeaz utzi zela udalerriko bizilagunak gartzelaturik ez zegoelako. Orain, egoera hori berraztertu egin behar dela dio», argitu du Udalak ohar baten bidez.

Bilera egitearen konpromisoari, dena den, eusten dio Udalak, «honen adibide, topaketa hau kolektibo honek entitate juridikorik duen edo ez, bere helburuak zein diren edo guztiak Ibarrenko bizilagunak diren edo ez jakin gabe garatuko da».

Honenkin guztiarekin batera, aste honetan kiroldegian «ekintza bat» antolatu dela ere salatu du Udalak. Esandakoaren arabera, bai kiroldegiko ekintzarako eta baita plazako kanpaldia egiteko «ez dute baimenik eskatu» eta horregatik egin du salaketa udalaren.

«Udalbatza osatzen duten taldeek normalizazio politikoarekin eta gatazkek elkarrizketa bidetik konpontzeko duten konpromiso zurruna gogoratu nahi dute eta edozein totalitarismo mota eta edozein jatorriko terrorismo ekintzekiko erabateko gaitzespena», esan dute.

BERRI ON BAT DUGU
ZURE ETXETRESNA ELEKTRIKOENTZAT

TOLOSALDEAN
Zerbitzu
Ofizial Berria
BSH Taldeko
Markentzat

Interservice
Ubarburu pasealekua, 81-
Pol. Ind. 27 • 20014 Martutene

902 351 352

Interservice
Servicio Oficial de Clientes

BOSCH
SIEMENS
Bosny
LYNX
ufesa

Mahala
BASERRIKO PRODUKTU NATURALAK

Jogurta

Mahala baserria - 20491 LEABURU
Tel.-Faxa: 943 673 499
Tel. Mug.: 689 805 633

E Elkarrizketa

PAKITTO SAGASTIBELTZA ▶ Aurrera Pilota Eskolako delegatua

«Galdu edo irabazi festa latza egongo da Leitzan»

Pilota ▶ Nafarroako Herri Arteko Txapelketaren finala jokatuko dute Iruñeak eta Leitzak Labrit pilotalekuan, bihar 09:30ean.

ASIER IMAZ

Nafarroako Herri Arteko Txapelketa 1970. urtean hasi ziren jokatzen. Lehen bi urteetan Leitzak finala izan zen, txapelak ordea 1972an eta 73an erori ziren. Hurrengo finala 1981ean jokatu zuten leitzarrek, nahiz eta ez irabazi. Garaipena 2007an ekarri zuten etxera, Euskal Herriko Herri Artekoarekin batera. Hilaren 5ean, bihar, Iruñeko Labriten historia idazten jarraitzeko aukera bikaina dute. Pakitto Sagastibeltza (Leitzak, 1958) Aurrera Pilota Eskolako delegatua da eta aste honetan «erotu beharrean» ibili da.

Finalari begira ezer berezirik egin al dute pilotariek aste honetan?

Deus ez. Berezitasun bezala agian asteazkenean Iruñean egin genuen material aukeraketa aipatu behar da.

Profesionaletan bezala funtzionatzen al du pilota aukeraketak?

Bai. Hiru arau horietan sartzen baldin badira, aurrera.

Dena ongi hautaketan?

Egia esan gorabeherak edukitu genituen alebiren pilotekin. Bat izan ezik beste denak pisuz kanpoko zebiltzan. Bat neurriko pilota hori aukeratu genuen eta bestea Federazioak utzitakoa. Orokorrean arazorik gabe joan zen dena.

Finalistak Labriten egon ziren beraz asteazkenean.

Bai. Denak joan ginen: Aurrerako hiru monitorea eta pilotari guztiak; Jon Jaunarena izan ezik, honek Antiguon partida jokatzen baitzuten.

Leitzak Iruñearen ondoan herri txikia da. Finalari begira, ordea, presioa ziur hemen handiagoa izaten ari dela.

Leitzan beti horrela izaten da. Hau pilotaren txokoa da: pilotari eta pilotazaleen herria. Ezin daiteke Hoberenarekin edo Iruñearekin alderatu. Herri txiki bat finalera iriste hutsa izugarriko meritua da. Iruñean taldea osatzeko aukera gehiago ditzugu, jende asko eta pilotari ugari daudelako; kirol hau lantzeko erraztasun handiagoak dauden bezala. Leitzak mugaturik



ASIER IMAZ

gelditzen da, bai pilotariz eta bai jendez. Ondorioz, inguruko herri-takoak hartu behar izaten ditugu. Desberdina da.

Finalaren ospakizunak txapela ahaztea ekarri ohi du askotan.

Guk ez dugu horrela ikusten. Hor oso ongi esan zuen Hoberena taldeko Errok: Leitzakoek irabazi egin behar dutela sinetsi egiten dutela, eta irabazi egiten dutela. Hori garrantzitsua da. Jendea ilusioarekin ikusten da eta nire ustez ilusio hori herri txikiak izateak ematen du. Iruñean desberdina dela esan nahi dut, jendeak ere desberdin bizi baitu. Hemen adibidez, kalean denak galdezka etortzen zaizkizu: zer asmo duzue? Zer egingo dugu?... Gu sinetsita edo ziur gau-

de baina ez da ahaztu behar edozer gauza gerta daitekeela. Ikusiko da. **Nola antolatu duzue biharko eguna?**

Goizeko 08:30ean autobusak frontoitik aterako dira. Ia bigarren autobusa betetzen ari gara. Pilotariak, alebinak, lehendabiziko partidua 09:30etan jokatu behar dute eta bere kabuz joan dira, 09:00etarako han egon behar baitute. Monitorea ere han egongo dira ordu horretan. Leitzatik herriko gaiteroak eta guzti joango dira. Behin Labritera iritsita, pankarta batzuk jarri eta goiza hantxe botako dugu, tentsio batean. Gero partidua bukatu ondoren, sari banaketan herriko gaiteroak jokatu dute. Arauek esaten duten bezala,

» DI-DA BATEAN

- **Alebinak:** Jon Lezea-Ander Eskudero: Edozer gauza egin dezakete; galdu edo irabazi.
- **Infantilak:** Anartz Olano-Mikel Hernandez: Irabazi zalantzarik gabe.
- **Jubenilak:** Jaunarena anaiak: Sendotasuna. Irabazi errez.
- **Seniorrak:** Asier Garzia-Mikel Iriarte: Sorpresa.
- **Aurrerako kideak:** Lana.
- **Leitzako pilotazaleak:** Pilota gertutik bizitzen duen jendea.

Leitzako Alkatea ere han egongo da.

Horrek zer esan nahi du, Iruñeko Alkatea ere han egongo dela?

Joan behar zuen baina gaur esan dit batek hura ezagututa ez dela joango. Bere lekuan kirol zinegotziren bat edo joango omen da. Leitzako udaletxetik alkateaz gain zinegotziren bat ere joango da. Gero Aurreratik lehendakaria ere han egongo da.

Irabazi edo galdu bazkaria egingo duzue ondoren.

Hangoa bukatu bezain laster, irabazi edo galdu, autobusa hartu eta Leitzara etorriko gara, Guratz Mendiko Elkartera. Iruñera joateko bi autobusez hitz egiten ari baldin bagara, bazkarirako lau beteko genituzke jendea izena ematen nola ari den ikusita. Galdu edo irabazi festa latza egongo da. Finalera iriste hutsak herriarentzat asko esan nahi baitu.

Zer esango diozue pilotariei partidaren aurretik?

Esateko deus gutxi. Gauza bakarra eta garrantzitsua: lasai jokatzeke. Labrit beteta egongo da eta ez da erraza final bat jokatzea, batez ere ume txiki horientzat. Lasaitasuna, ahal dutena egiteko eta puntu. Hori bai, gero saiheutsen azpian kolpe bat ematen diegu, esnatzeko eta suspertzeko.



Lankideari elkartasuna adieraziz

TOLOSA • Zu eta Biok enpresako langile batek orain bi aste jasandako eraso salatzeke bere lankideek elkarretaratzea egin zuten atzo, Triangulon. Erasoak ekainaren 21ean, sanjoanetan, izan zen, lurramendiko egoitzara lanera zihoala. Lankideek euren elkartasuna agertzearekin batera «horrelako eraso gehiago ez egoteko» ere egin zuten elkarretaratzea. R. CALVO



San Joan sari berezia banatu dute

TOLOSA • Alde Zaharra Dendak elkarrekin antolatutako San Joan sari berezia banatu zuten atzo. Agustin Ruiz izan da bi lagunentzat Zumaiako talasoterapia zentroan atebukaera irabazi duena. Sari banaketan izan dira Itxaropena Elordi, Alde Zaharra Dendak elkarrekin lehendakaria, Agustin Ruiz saritua eta Cecilia Bronte, Bronte farmaziako arduraduna, han eskuratu baitzuten txartel saritua Agustin Ruizek. HITZA

Iragarki laburrak

LANA

■ **Bigi Garbitasunak.** Garbiketa orokorrak, obra bukaerako garbiketak, bulegoak, etxeak, moketak eta alfonbrak. Deitu inongo konpromisorik gabe telefono zenbaki hauetara: 638 944 604 (Gurutze) edo 695 708 271 (Belen).

ALOKAIRUAN

■ **Etxebizitza.** Ikaztegiatan etxebizitza alokairuan, altzariekien. Interesatuek deitu ondoko zenbaki hauetara: 943 65 40 77, 628 69 88 07 edo 676 0112 60.
■ **Etxebizitza.** Tolosan atikoa alokatzen da, altzariekien, erdialdean. Igoailurarekin. Interesatuek deitu ondorengo telefono zenbakira: 618 130 081.



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
Publizitatea: 661 678 818 tolosa@iragarri.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoetalde: 687 410 022. anoetalde@tolosaldeko hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 032. ibarraldea@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

■ **Ibarra.** VII. Langostino Moto
Festa: 14:00etan hasiera,
17:30ean moto jokoak, 19:30ean
stuntman akrobaziak Emilio Zamora
team-ekin, 21:00etan afaria,
23:00etan Hardware eta Lolos
Club taldeekin rock kontzertua,
02:00etan striptease mistoa eta
03:00etan Dj.
■ **Tolosa.** Tolosako Udaberri dantzari
taldeak eta Danzantes de Gu-
rrea taldeak 19:30ean kalejira

eringo dute Alde Zaharreen eta
22:30ean dantza emanaldia, Pla-
za Berrian, Gau giroen baitan.
■ **Irura.** Garagardo Azoka
18:00etatik 01:00era. Gaur, 70.
hamarkadako janzkera eramatea
eta play-backen eta karaoken par-
te hartzea eskatzen dute.
■ **Asteasu.** Santamañako lgoera
korrika uztailaren 12an, 10:30ean
(7 km). Izen-ematea, 943 696896
eta 943 693400 telefono zenba-
kietan.

■ **Tolosa.** Udako liburutegia Usa-
bal igerilekuan, astelehenetik lar-
runbatera 15:00etatik 19:00etara.
■ **Tolosa.** Abuztuaren 1etik 13ra
Santiago Bidea bizikletaz kostatik,
Tolosatik abiatuta, kiroldegietan lo
eginez eta otorduak jatekietan
eginez. Izen-ematea, 687 568258
(Fernando) eta 664 129216 (Lus
M.) telefonoetan.
■ **Tolosa.** Soldadura, mekanizatua
eta ostalaritza ikastaroak antolatua
ditu Peñascal fundazioak datorren

ikasterterako 16 eta 18 urteko gaz-
teentzat, 2.000 ordukoak. Izen-
ematea, fundazioan edota 943 67
6161 edo 943 67 51 95 zenbakie-
tara hots eginez.
■ **Villabona.** Bear zana pilotale-
kuaren inaugurazioa 22:00etan:
dantza taldeak, abesbatzak, Musi-
ka Eskolako eta Bertso eskolako
ikasleak.

Los mundos de Coraline filma.
22:30ean, Arnaud Desplechin-en
Un cuento de Navidad filma.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Ibarra.** Ugarte, M. T. Euskal He-
rria, 46. 943 67 32 74.
■ **Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95.
112.

HITZAK ez du bere gain hartzen
egunkariaren adierazitako esanen
eta iritzien erantzunkizunik.

Zinema

■ **Tolosa.** Leidor aretoan, 19:30ean

A Agurrak



Zorionak!

Aitor Lopetegui Arrue (Tolosa).
Gaur 4 urte. Zorionak eta muxu
asko etxeko guztien partetik.



Zorionak Barriola!

Prepatu hai despedidako... hiri re etorriko zaik hire raziya...
Adunako lagunen partetik.



Zorionak!

Pili eta Joxe (Anoeta). 1984ko uztailaren 7an ezkondu zineten.
Gaurkoan ospatzekotan juntatuko gara denok. Zorionak eta
ondo pasa zuen txapa egunean. Zuen seme-alaben partetik.

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

agurrak

Mesedez,
ekarri
argazkia
bi egun
lehenago.

agurrak

1. Euskal Herriko ziboturista itzulia
Prueba ciclista del País Vasco
Randonnée cyclotouriste du Pays Basque
MAULE (Zuberoa) Euskal Herria

IRATIKO TOURRA
- martxa ziboturista -
2009
Iraila
Julio
Julio

IZEN-EMATEA/INSCRIPCIÓN/ PAR CHÈQUE
www.iratikotourra.com
www.herrikrossa.com
www.sam.mauleon.com

Sponsorrak:
hitza

Antolatzaileak:
Euskal Herriko Ziboturista Itzulia
SEM

TRURAK
Garagardo
02 900

7

Uztailak 3, 4 eta 5
(18:00-01:00)